

GIG 30

SAKONETAKO MULTZO GEOMORFOLOGIKOA

BALIO INTRINTSEKOA: 3,75

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,63

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Sakonetako itsasbazterra Geoparkeko paisaia geomorfologikorik ikusgarrienetako bat da. Malkartsua oso, ilargi-erdi itxura du, ipar-mendebaldera begira dago, eta bi muino txiki ditu muga, ezker-eskuin. Kostalde-zati honen morfologia bi faktoreren eraginpean dago, nagusiki: batetik, itsaslabarra osatzen duten materialen orientazioa, okerdura eta konpetentzia (marearteko eremu osoan baitaude azaleratuta), eta bestetik, olatuek itsasotik dakarten norabidea. Segidan arroka gogorrenetakoak diren zatiak dira lurmuturrak (hareharriz eta kareharriz osatuak), eta hondartza, berriz, zatirik tupatsuean sortu da.

Sedimentu-urritasuna da nagusi senadi txiki honetan, eta dauden sedimentu bakarrak ekialdean ageri diren hondarrezko gune txiki batzuk eta itsaslabarraren oinarrian dauden harri-koskorrezko hondartza bakartu batzuk baino ez dira. Horri esker, marearteko abrasio-plataforma zoragarria bere handitasun osoan ikus daiteke itsasbeheran, agerian geratzen denean. Eremu ia lau hau higadura mekanikoko zenbait prozesuren eraginez sortu da, eta kosta-lerroari atzera eginarazi dioten prozesu horien guztien adibide garbiak ageri dira hemen.

Marearteko zabalgunean *kubeta* deritzen hainbat zulo edo sakonune daude, tamaina metrikotik deka-metrikora bitartekoak, eta harri-koskorrak eta hondarra pilatzen dira haietan; sakonera txiki eta zabalera handiko egitura beheratuak dira kubetak, eta azaleratuta dauden materialak konpetentzia-maila berekoak ez izateak lagunduta sortu ohi den higadura diferentziala edo diaklasa txikiak tarteko direla eraten dira. Hutsune horien hormak hainbat organismo zulakarik egindako zulaketaz josita daude (itsas trikuak, molusku litofago edo harrijaleak, etab.). Beste elementu batzuk ere badaude, hala nola *jentilen lapiko* deritzenak; sakonune zirkularrak dira, hondo laua, konkaboa edo inbutu-itxurakoa izaten dute, eta hormak, berriz, bertikalak, zentimetrikoak edo metrikoak.

NOLA BERTARATU

15 minutu inguru oinez eginda erraz iristen da Sakonetako hondartzara Errota Berri atsedentleku eta landa-etxetik, bai eta Mendatagainako begiratokitik ere. Errota Berrira joateko, N-634 errepidean bertarako bidea hartu behar da Itziar eta Zumaia artean; eta begiratokira iristeko, berriz, Itxaspe kanpinera joateko bidea hartu behar da, Itziarko gainean.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo Mendatagainako begiratokia.



Sakonetako multzo geomorfologikoa, Mendatagainako begiratokitik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 555752 m / Y= 4794035 m / Alt.= 0 m



Sakonetako marearteko zabalgunea.